



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

17. ERABAKIA:

SAN MIXEL ESKOLA PRIBATUARI 2022ko ESKOLATZE PREZIO FINKOAREN %30eko AURRERAKINA ORDAINTZEA

Nomenklatura: 7,5

Jaun auzapezak herriko kontseiluari oroitarazten dio Hezkuntza Kodeko L.442-5 artikulua zehazten duela Ortzaize-Arrosako HEE (Herriarteko Eskola Elkargoa) lurraldean kokatuak diren kontratupeko ikastalde funtzionamendu gastuak eskola publikoko antzeko ikastaldeen baldintza berekin kudeatuak direla.

Jaun auzapezak kontseiluari jakinarazten dio San Mixel eskola pribatuak 2022ko eskolatzeko prezio finkoaren %30eko aurrerakinaren ordaintzea eskatzen duela.

Aurrerakina kalkulatu izanen da 2022ko eskolatzeko prezio finkoaren aitzineko estimazioa oinarri, 2021ean ordaindutakoaren antzekoa izanen dela sumatuz.

Jaun auzapezak kontseiluari oroitarazten dio Ortzaize eskola publikoko funtzionamendu gastuak 2020-2021 ikasturtetako ondokoak zirela:

- 37 662,13 euro 40 ikasle ama eskolan eskolatzeko, hots 941,55 euro haur bakoitz Ortzaize eskolaren gain.

- 9 768,51 euro 31 ikasle lehen mailan eskolatzeko, hots 315,11 euro haur bakoitz Arrosako eskolaren gain.

San Mixel eskola pribatuak 2021eko iraileko sartzean Ortzaizen bizi diren 14 ikasle zituenez, horietatik 5 ama eskolan eta 9 lehen mailan, auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio aurrerakinaren zenbatekoa izanen dela:

2 263,12 eurokoa, ondoko kalkuluaren arabera:

$$[(941,55 \text{ euro} \times 5) + (315,11 \text{ euro} \times 9)] \times 0,3 = \underline{\underline{2\ 263,12 \text{ euro}}}$$

Eskola publikoko ikasle bati dagozkion funtzionamendu gastuak x Ortzaizeko eskola pribatuaren ikasle kopurua x %30

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak,

- **ONARTZEN DU**, aho batez, 2 263,12 euroko aurrerakina ordaintzea San Mixel eskolari 2022. urterako,

- **BAIMENA EMATEN DIO** auzapezari gai honi lotutako urraspide oro abiatzeko eta dokumentu oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

